



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko ekainaren 16a

69. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, aparteko kreditua ematekoa, haren bidez Iruñeko Abokatuen Elkargoari zuzeneko dirulaguntza bat emateko, espetxe-zuzenbideari buruzko web orri espezializatuaren finantzabide gisa (2. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez, Nafarroako Parlamentuak erabakitzen baitu Juan Carlos Borboikoa herritarren erretratua Gobernu Aretotik kentzea. Eledunen Batzarrak onetsia (4. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu funtzionario eta agintari frankistei kondekorazioak kentzeari buruz Diputatuen Kongresuak onetsitako legez besteko proposamenarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (4. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu #LaMejorlección kanpainarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (5. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Kultura eta Kirol Departamentuak sektoreko eten digitala arintzeko hartu dituen neurriei buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (7. or.).

—Galdera, herritarren konfiantza berreskuratzeko eta kirol nahiz kultur esparru itxietara segurtasunez itzultzea sustatzeko hartu diren neurriei buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (7. or.).

—Galdera, zaharrentzako egoitzetako deseskalatze-prozesuari buruzkoa. Isabel Aramburu Bergua andreak egin du (8. or.).

—Galdera, Nafarroan osasun eskualde oinarriko guztiak 2. fasera igarotzea justifikatu duten datuei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (8. or.).

—Galdera, Nafarroan osasun eskualde oinarriko guztiak 3. fasera igarotzea justifikatu duten datuei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (9. or.).

—Galdera, zahar-etxeetan hildakoei buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (10. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, aparteko kreditua ematekoa, haren bidez Iruñeko Abokatuen Elkargoari zuzeneko dirulaguntza bat emateko, espetxe-zuzenbideari buruzko web orri espezializatuaren finantzabide gisa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2020ko ekainaren 10ean hartutako Erabakiaren bidez, honako foru lege proiektu hau igorri dio Nafarroako Parlamentuari: “Foru Lege proiektua, aparteko kreditua ematekoa, haren bidez Iruñeko Abokatuen Elkargoari zuzeneko dirulaguntza bat emateko, espetxe-zuzenbideari buruzko web orri espezializatuaren finantzabide gisa”.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 158. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarrekin adostu ondoren, hona ERABAKIA:

1. Osoko Bilkuraren esku jartzea honako foru lege proiektu honen izapidetzea zuzeneko eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia: “Foru Lege proiektua, aparteko kreditua ematekoa, haren bidez Iruñeko Abokatuen Elkargoari zuzeneko dirulaguntza bat emateko, espetxe-zuzenbideari buruzko web orri espezializatuaren finantzabide gisa” (10-20/LEY-00009).

2. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proiektua, aparteko kreditua ematekoa, haren bidez Iruñeko Abokatuen Elkargoari zuzeneko dirulaguntza bat emateko, espetxe-zuzenbideari buruzko web orri espezializatuaren finantzabide gisa.

ZIOEN AZALPENA

Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuaren aurrekontuko kontsignazioak egokitu beharra dago, Iruñeko Abokatuen Elkargoari zuzeneko dirulaguntza bat emateko, espetxe-zuzenbideari buruz espezializatutako bere web orriaren finantzabide gisa.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikulua ezartzen du ezen, hurrengo ekitaldira arte atzeratu ezin daitekeen gasturen bat aurrekontu indardunaren kargura egin behar bada eta krediturik ez badago edo kontsignatutakoa aski ez bada, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, aparteko kreditu bat emateko foru lege proiektu bat bidaliko diola Nafarroako Parlamentuari.

Era berean, foru lege honek, partida izenduna sortuz, Iruñeko Abokatuen Elkargoari zuzeneko dirulaguntza bat ematea ahalbidetzen du, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 17.2.a) artikuluan xedatutakoarekin bat.

1. artikulua. Aparteko kreditu bat ematea.

18.343,40 euroko kreditua ematen da, Iruñeko Abokatuen Elkargoari zuzeneko dirulaguntza bat emateko, espetxe-zuzenbideari buruz espezializatutako bere web orriaren finantzabide gisa.

Kreditu hori aplikatuko zaio “Iruñeko Abokatuen Elkargoarekiko hitzarmena, espetxe-zuzenbideari buruzko web orrirako” izeneko

F20001 F2000 4819 112103 aurrekontu-partidari.

2. artikulua. Aparteko kredituaren finantzaketa.

Aparteko kreditu hori finantzatuko da “Peritulanak, itzulpenak eta lekukoak” izeneko F20001

F2000 2279 112104 aurrekontu-partidaren kargura, 18.343,40 euroko zenbatekoarekin.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez, Nafarroako Parlamentuak erabakitzen baitu Juan Carlos Borboikoa herritarraren erretratuaren Gobernu Aretotik kentzea.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2020ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak erabaki du Juan Carlos Borboikoa herritarraren erretratuaren margolana Parlamentu honetako Gobernu Aretotik kentzea” (10-20/DEC-00042).

Iruñean, 2020ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu funtzionario eta agintari frankistei kondekorazioak kentzeari buruz Diputatuen Kongresuak onetsitako legez besteko proposamenarekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2020ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Diputatuen Kongresuarekin, eta Espainiako Gobernua premiatzen du:

1. Modu eraginkorrean baliogabetu ditzan Estatuak diktadura frankistako funtzionarioei edo agintariei emandako kondekorazio eta ordainsariak, baldin eta, horiek eman aitzin edo ondoren, giza eskubideen babesa gidatzen duten printzipioekin eta balio demokratikoekin nabarmen bateraezinak diren jarrerak edo ekintzak egin badituzte. Baliogabetze hori orobat egiten ahalko da heriotzaren ostean, kondekorazioa jaso zuen pertsona hilda badago. Betiere, baliogabetzeak

berekin ekarriko du ordainsariari datxezkion esku-bide guztiak galtzea –baita ekonomikoak ere–, baliogabetzea deklaritzen duen ebazpena jakinarazten denetik aitzina.

2. Zehazki, baliogabetu egingen dira erregimen frankistako inspektore ohi Antonio González Pachecori (goitizenez, Billy el Niño) emandako kondekorazioak, zeina tortura nahiz gizateriaren aurkako krimenak direla-eta inputatu baitzuten bere garaian, Buenos Airesko (Argentina) Krimen eta Zentzategi arloko 1. Epaitegi Federalak irekitako 4591/2010 kausa kriminalean.

3. Estatuaren memoria demokratikoaren aurkakotzat jo ditzan diktadura frankistako funtzionarioei edo agintariei beren kargua edo eginkizuna betetzeagatik emandako kondekorazio eta

ordainsariak, baldin eta, horiek eman aitzin edo ondoren, giza eskubideen babesa gidatzen duten printzipioekin eta balio demokratikoekin nabarmen bateraezinak diren jarrerak edo ekintzak egin badituzte diktadura frankistaren errepresio-aparatuen parte izatearen kariaz.

4. Hartu beharreko araugintza-ekimenak har ditzan, 1936ko kolpe militarra, Gerra Zibila eta frankismoa laudatzea edo gorestea dakarren per-

tsonentzako nahiz entitateentzako goresmen, izendapen, ohorezko titulu nahiz bestelako ezein molde berrikusteko eta baliogabetzeko, eta 1948tik 1978ra bitarte emanik Gerra Zibilaren nahiz diktaduraren gorespena dakarten noblezia-tituluen katalogo bat egin dezan, titulu horiek kentzeko" (10-20/DEC-00043).

Iruñean, 2020ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu #LaMejorlección kanpainarekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2020ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

"1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du #LaMejorlección kanpainarekin.

2. Nafarroako Parlamentuak uste du beharrezkoa dela Nafarroako Gobernuak nahiz Espainiako Gobernuak beren elkartasun-konpromisoa berreskura dezaten, beren konpromisoak bete ditzaten eta apustu irmoa egin dezaten Garapenerako Laguntza Ofiziala % 0,7koa izan dadin berriz ere, eta gutxienez ere horren % 8 bidera dezaten hezkuntzara. Laguntza hori funtsezkoa da giza eskubideak sustatzeko eta mundu osoan garapen jasangarria lortzeko. Denentzako hezkuntza inklusibo, ekitatezko eta kalitatezko gabe, ezin da garapen jasangarriak egon.

3. Nafarroako Parlamentuak uste du beharrezkoa dela 2030eko Agendaren helburu guztiak – bereziki, hezkuntzaren arlokoak– finantzatzeko behar adinako aurrekontu bat edukitzea, halako moduan non Garapenerako Laguntza Ofizialak 2008ko krisia baino lehenagoko aurrekontuak berreskuratuko baititu eta hezkuntzan eginiko gastu publikoa handituko baita.

4. Nafarroako Parlamentuak uste du beharrezkoa dela herritartasun globalerako hezkuntza eraldatzailea eskola-curriculumetan sar dadin, eta arreta berezia eskaini dakion ingurumenaren nahiz gizartearen jasangarritasunari, bai Espainian bai herrialde txirotuetan, garapenerako gure politiken bitartez.

5. Nafarroako Parlamentuak dio hezkuntza ekitatezko, inklusibo eta kalitatezko baterako eskubi-

dea defendatzean eta pertsona guztien bitziza osoan zehar ikaskuntza-aukerak sustatzean Garapen Jasangarriko Helburuen 2030eko Agendan ezarritako xedeak bete daitezela laguntzeaz gain mundua eta gizartea bizigarriagoak izan daitezela lortzen dela.

6. Nafarroako Parlamentuak hezkuntzaren jarraitutasuna ziurtatzeko neurriak hartzeko eta aplikatzeko konpromisoa hartzen du, Larrialdi Egoeretako Hezkuntzarako Agentzien arteko Sarearen gutxienezko estandarretan oinarrituta. Larrialdi egoeretako hezkuntzak laguntza humanitarioaren oinarritzko zutabe izan behar du.

7. Nafarroako Parlamentuaren konpromisoa da Nafarroan bermatzea hezkuntzak funtsezko egin-kizuna izan dezan larrialdi honi nahiz beste batzuei erantzutean nahiz etorkizunean COVID-19aren osteko suspertze planak egitean, bai Nafarroan bai mundu osoan. Nafarroako Parlamentuak uste du beharrezkoa dela eten digitalagatik nahiz bestelako arrazoiengatik urrutiko eskolatzeko-prozesuarekin jarraitzeko zailtasunak izan dituzten haur eta nerabeak identifikatzea eta gabezia hori konpontzea ahalbidetuko duten neurriak abiaraztea. Babes neurri horiek beharrezkoak diren giza baliabideen nahiz baliabide tekniko eta ekonomikoen eskutik joan behar dute, eta ikastetxeak berriz irekitzen direnean mantendu behar dira.

8. Nafarroako Parlamentuak uste du irakasleei laguntzeko neurriak hartu behar direla, halako moduan non irakasleek beharrezkoak diren baliabideak eta laguntza izanen dituzten, testuinguru honetan irakaskuntzaren kalitatea mantentzeko.

Laguntza neurri horiek ikastetxeak berriz irekitzen direnean mantenduko dira

9. Nafarroako Parlamentuak uste du beharrezkoa dela laguntza psikosozialeko ekimenak abiaraztea, ikasleei konfinamenduaren ondorioak ahal bezain ongi kudeatzen laguntzeko, bai deseskalatze-prozezuan, bai 2020-2021 ikasturtean “normaltasun berria” deritzon.

10. Nafarroako Parlamentuak uste du beharrezkoa dela aztertzea ea zer aukera dagoen

garapen bidean dauden herrialdeen kanpo zorren ordainketa malgutzeko, penalizaziorik eta interesik gabe, gutxienez ere 2020an. Hartara, herrialde horiek baliabide gehiago izaten ahalko dituzte COVID-19aren krisitik heldu diren erronkei erantzuteko, baita hezkuntzaren esparruan ere” (10-20/DEC-00044).

Iruñean, 2020ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, Kultura eta Kirol Departamentuak sektoreko eten digitala arintzeko hartu dituen neurriei buruzkoa.*RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak aurkeztutako galdera, Kultura eta Kirol Departamentuak sektoreko eten digitala arintzeko hartu dituen neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kiroleko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Kultura Departamentuak zer neurri hartu du sektorean eten digitala arintzeko?

Iruñean, 2020ko ekainaren 5ean

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

Galdera, herritarren konfiantza berreskuratzeko eta kirol nahiz kultur esparru itxietara segurtasunez itzultzea sustatzeko hartu diren neurriei buruzkoa.*RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak aurkeztutako galdera, herritarren konfiantza berreskuratzeko eta kirol nahiz kultur

esparru itxietara segurtasunez itzultzea sustatzeko hartu diren neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kiroleko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer neurri hartu da herritarren konfiantza berreskuratzeko eta kirol nahiz kultur esparru itxietara segurtasunez itzultzea sustatzeko?

Iruñean, 2020ko ekainaren 5ean

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

Galdera, zaharrentzako egoitzetako deseskalatze-prozesuari buruzkoa.

ISABEL ARAMBURU BERGUA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Aramburu Bergua andreak aurkeztutako galdera, zaharrentzako egoitzetako deseskalatze-prozesuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko kide Isabel Aranburu Bergua andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Osasun Departamentua nola ari da egiten zaharrentzako egoitzetako deseskalatze-prozesua?

Iruñean, 2020ko ekainaren 11n

Foru parlamentaria: Isabel Aranburu Bergua

Galdera, Nafarroan osasun eskualde oinarritzko guztiak 2. fasera igarotzea justifikatu duten datuei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Nafarroan osasun eskualde oinarritzko guztiak 2. fasera igarotzea justifikatu duten datuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Zeintzuk dira datu epidemiologikoak, oinarrizko osasun eskualdeka, Nafarroako oinarrizko osasun

eskualde guztiak 2 fasera igarotzea justifikatu dutenak? Ba al dago beste daturik, epidemiologikoez gain, 2. fasera igarotzea justifikatzen duenik? Hala baldin bada, justifikazio hori ezagutu nahi dugu.

Iruñean, 2020ko ekainaren 8an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, Nafarroan osasun eskualde oinarrizko guztiak 3. fasera igarotzea justifikatu duten datuei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Nafarroan osasun eskualde oinarrizko guztiak 3. fasera igarotzea justifikatu duten datuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Deseskalatze-prozesua dela-eta, zer datu epidemiologikok justifikatu dute, oinarrizko osasun eskualdeka, Nafarroako oinarrizko osasun eskualde guztiak 3. fasera igarotzea? Ba al dago beste daturik, epidemiologikoez gain, 3. fasera igarotzea justifikatzen duenik? Hala baldin bada, justifikazio hori ezagutu nahi dugu.

Iruñean, 2020ko ekainaren 8an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, zahar-etxeetan hildakoei buruzkoa.

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko ekainaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko galdera, zahar-etxeetan hildakoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

2020ko maiatzaren 12an, parlamentari naizen honek Eskubide Sozialetako Departamentuari galdetu nion ea zahar-etxeetan zergatik jaitsi den egunetik egunera sintomekin hil diren pertsonen kopurua.

Eskubide Sozialetako kontseilariak ekainaren 9an honako hau erantzun zidan: "Baieztatu gabeko sintoma bateragarriekin hildakoei buruz zahar-etxeek hasiera batez jakinarazitako kasuak bieta-ko bat izan dira azkenean: Osasun Departamentuak baieztatutako COVID-19ko kasuak ala COVID-19 ez den beste kausa batzuegatik hildakoak".

Kontuan izanik zahar-etxeek jakinarazitako kasuak hilik zeuden pertsonenak zirela, nola da posible baieztatutako COVID-19ko kasu ala COVID-19 ez den beste kausa batzuegatik hildako gisa hartzea hil eta gero?

Osasun Departamentuari eskatzen diot banan-banan azalpena eman dezan, irizpidea aldatu den kasu horietako bakoitzerako, bai eta zer organo zehatz edo unitate izan den aldaketa hori egin duena.

Iruñean, 2020ko ekainaren 10ean

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

